


Kepa Elortza, ekimena antolatzeaz arduratzen den taldeko ordezkaria, eta alkatea, aurkezpenean.

# Herritarren omenaldia Jerardo Elortzari

EKAINEAN AITORTZA EGINGO ZAIO EUSKALTZALE ETA HERRIKO HISTORIAREN IKERTZAILE HANDIA DEN OÑATIAR HONI

*Anabel Dominguezen erreportajea eta argazkia*

Euskaltzale eta historiazale amorratu den Jerardo Elortzak (Oñati, 1944) omenaldia jasoko du ekainaren letik 9ra arte ospatuko den kultur astearen baitan. "Zabalagoa izango da, eta Jerardorekin batera, 60-70 hamarkadetan Oñatin bizi izan zen euskal berpizkundearen eragileak ere gogoan izango dira. Garai hartan sortu ziren Oñatz kultur taldea, ikastola, udal liburutegiko batzordea...", azaldu zuen Kepa Elortzak, ekimen honen antolatzeaz arduratzen den taldeko ordezkariak.

Errekonozimendua eta omenaldi honen lehen ideia 2008an sortu zela gogoratu zuen Elortzak asteazkenean egindako aurkezpenean. Orduan, Eibarren bizirik dagoen lehen euskaltzalea omendu zuten, Serafin Basauri, hain zuzen. Bertaratu ziren hainbat oñatiarrek Jerardok beste horrenbeste merezi zuela komentatu zuten. Orain, hamar urte beranduago, bere urtebetetzearen bueltan –ekainaren 5ean 74 urte beteko ditu– Jerardok egindako lana goraipatuko dute.

Oñatin oso pertsona ezaguna da Jerardo, batez ere, azkeneko 50 urteetan herriko kulturaren alde egin duen lanagatik: hizkuntzan, etnografian, ondarean eta beste zenbait esparrutan. Akademikoki aleman filologian lizentziaduna den arren, guraso eta arbasoengandik jasotako bizimodu, historia, ohitura eta berbetaren erroak ikertzen eta zabaltzen eman ditu urteak, beti ere herriaren maitale sutsua dela erakutsiz.

**EKAINAREN 1ETIK 17RA ARTE** Antolatutako egitarauari kultur etxeak ekainaren letik 8ra arte jasoko duen erakusketarekin ekingo diote. 4an, aldiz, Juan Martin Elexpuru bergararrak Jerardoren bizitza kultural eta akademikoaz jardungo du Santa Ana antzokian (19.00etan). Ekitaldi hori Idoia Etxeberriak prestatutako bideo biografikoaren proiekzioarekin batera, Paulo Anduaga agustindarrak bere komunitatearen eta Jerardoren arteko harremanaren gainean eskainiko duen hitzaldiarekin hasiko da.

Ekainaren 6an, 1965-1980 urte inguruko Oñatiko kultur bizitzaren berpizkundea izango da hizpide garai horietako lekukoen eskutik: Jerardo Elortza, Euxebi Osa (ikastolaren izenean), Carmenchu Balzategui (Oñatz) eta Juantxo Madariaga (udal liburutegiko batzordea). Kultur etxean elkartuko dira (19.00etan) eta Luxio Ugarte izango da moderatzailea. Hurrengo egunean, 7an, Jerardok parte hartutako filmekin gozatzeko aukera egongo da kultur etxean: *Gabon dut Anuntzio* (1999), *Liñugintza* (1974), *Aita Lasa, artzainen artzain* (1981) eta *Lope de Agirre* (1983).

**Elortzari eta 60-70 hamarkadan Oñatin bizi izan zen euskal berpizkundearen eragileei aitortza eta omenaldia egingo zaie**

Ekitaldi nagusia ekainaren 9an egingo dute Santa Ana aretoan (12.00). Poesia errezitaldia, proiekzioak, kantuak, atxikimenduak, opariak... ez dira faltako. Egun horretan ere eskoletan Jerardoren proposamenez lantzen ari diren trenaren inguruko unitate didatikoa aurkeztuko dute ikasle batzuk. Ondoren, lagun arteko bazkaria izango da Etxe Aundi jatetxean.

Kultur astea osatzeko, ekainaren 17an Araotzetik Urrexolarako ibilbideak hartuko du lekukoa, Jerardo beraren eta Natur Eskolako Imanol Biainen gidaritzapean.

**BILDUMA** Mikel Biain alkateak Udalak ekimena babesten duela adierazi zuen. "Jerardo Elortza artxibo ibiltaria da; herriari eta herritarrei laguntzeko beti prest dago. Gainera, berari ez ezik, herriko kultur susperraldi garantzitsu baten partaide izan zen taldea ere gogora ekarriko da; beraz, eskerrak eman nahi genizkioke antolakuntzari", azpimarratu zuen Biainek.

Nahiz eta gaia oraindik oso zehaztuta ez dagoen, Udala Jerardoren izena eramango lukeen bilduma bat eratzeko aukera lantzen ari dela aipatu zuen Biainek. Bere ezagutzatik abiatuta, herriko gaiei buruzko argitalpena izan daiteke, eta lehen alea Elortzari egindako elkarrizketak osatuko du.

# Bergara Hiria visibilizará a las mujeres en el deporte

Habrá campeonatos de pelota, hockey, fútbol, balonmano y baloncesto, además de la cronoescalada a San Martzial

**BERGARA** – Visibilizar a la mujer en el deporte y poner un granito de arena contra la histórica desigualdad que el colectivo femenino vive en este ámbito. Con este objetivo echan a andar las competiciones que bajo el paraguas de *Bergara Hiria* se disputarán hasta finales de año.

La iniciativa se ha gestado al calor de los actos conmemorativos del 750º aniversario de la fundación de la villa. Pelota, hockey, ciclismo, baloncesto, fútbol y balonmano son las disciplinas que se han sumado al Bergara Hiria, una cita con protagonismo exclusivamente femenino que nace con vocación de tener continuidad. De hecho, el Consistorio y distintos clubes y secciones deportivas suscribirán un acuerdo para cinco años, que permitirá llevar adelante estos campeonatos, que para su estreno reciben el respaldo económico de 12.000 euros con cargo al presupuesto del 750º aniversario.

Algunas de estas citas deportivas ya están en marcha, como es el caso del torneo que ha congregado a las mejores manistas, seis pelotaris promesas y otras tantas senior, en el frontón municipal. La final, que coincidirá con la de chicos, tendrá lugar el próximo 21 de mayo.

Por su parte, Burdinola Irristaketa Kluba ofrece un doble encuentro: el 2 de junio Labegaraieta acogerá un triangular de hockey línea y, al día siguiente, habrá un 3x3 abierto a la participación. El 15 de junio será el turno del ciclismo con la segunda cronoescalada a San Martzial femenina de la mano de Lokatza.

Con la fecha aún por concretar, el primer o segundo fin de semana de septiembre, la sección de fútbol pondrá a jugar a ocho equipos infantiles y cuatro senior, mientras que el baloncesto se reserva para mediados de septiembre (previsiblemente el día 14) con partidos en veteranas y senior elite de la Liga Femenina (esta última traerá a Labegaraieta al IDK Gipuzkoa).

Por último, el 9 de diciembre, gracias al acuerdo que la sección de balonmano del BKE ha alcanzado con la Federación guipuzcoana, Bergara será escenario del triangular que disputarán las cadetes de Aquitania (Francia), la selección guipuzcoana y la formada en la comarca. -A.D.



Representantes de los clubes con el trofeo, obra de Pili Arin. *Foto: A.D.*

## Concierto en Bergara de las escuelas de música de Debagoiena

**BERGARA** – Las escuelas de música de Oñati, Eskoriatza, Arrasate, Aretxabaleta y Bergara, además de la de Soraluze, se dan cita hoy en la villa mahonera para protagonizar el concierto que anualmente reúne a los alumnos de los centros de Debagoiena dedicados a la enseñanza de la música. En esta ocasión, tomarán parte en torno a 150 alumnos en un recital que hará vibrar Seminarixoa, a partir de las 19.00 horas. - A.D.

## Entradas para el documental sobre Arizmendiarrieta

**ARRASATE** – El documental que el cineasta Gaizka Urresti ha dedicado a la figura de José María Arizmendiarrieta, padre espiritual e inspirador del movimiento cooperativo vasco, ha puesto a la venta las entradas para las proyecciones que el Amaia antzokia de Arrasate acogerá los días 5 (19.30 y 22.00 horas), 6 (19.30) y 7 (20.30) de mayo. Los pases para el estreno oficial del 4 de mayo, también en el Amaia, todavía no se pueden comprar.- A.D.